



Bilbo Ibaizabale(a)n

Oihana Bartra Arenas

Euskal Herriko hiri handiena dugu Bilbo, Bizkaiko hiriburua.
Ezagutu dezagun!
Ibaizabal ibaiari segituz egingo dugu ibilbidea.
Bertako bertsolaria den Oihana Bartrak emango dizkigu azalpenak!

***Doinua: Aita-semeak tabernan daude /
Kopla handia***

**Boluetatik Elorrietara
txaluparen magalean
goazen Bilbo ezagutzera
gure ibai zabalean**

- 1 Abusu pasa eta San Anton
zubia gogoz **agurtu**
baxuak lasai egon jarrita
eta altuak **makurtu**.
- 2 Erriberako merkatua ta
Arriagarantz **ibaia**
egin garrasi ea balkoira
irteten den **Mari Jaia**.
- 3 Udaletxea ta Zubizuri
Guggenheim zaigu **hurbiltzen**
titaniozko itsasontzi hau
ez da errekan **kabitzen**.
- 4 Deustura heldu ta nahi badugu
bidean luzaro **iraun**
*Tomateroen indarrarekin
egin behar dugu **arraun**.
- 5 Espaziontzi forman Athletic
zale guztien **San Mames**
hemen etxeko dira Real
Osasuna ta **Alaves**.
- 6 Olabeaga eta Zorrotza
baino ez dira **gelditzen**
kondairak ez al zuen esaten
Bilbo ez dela **amaitzen?**

(*)Deustuko arraun taldeari Tomatera esaten zaio.